BESTELAKO XEDAPENAK

HERRIZAINGO SAILA

5443

EBAZPENA, 2011ko urriaren 4koa, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariarena, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegiak bideratu duen administrazioarekiko auzi-errekurtsoan (309/2011 prozedura laburtua) interesdun izan litezkeenak deitzen dituena.

Goian azaldutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa (309/2011 prozedura laburtua) Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariaren 2011ko ekainaren 9ko Ebazpenaren kontra aurkeztu da; ebazpen honen bitartez, Tiro polizialeko instruktoreen prestakuntza-aldirako eta trebakuntzaldirako deia egiten da. Eta, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3 zenbakiko Epaitegiak espedientea bidaltzeko eskatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 49.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, aipatutako prozeduran interesdun izan litezkeenei dei egiten zaie, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita bederatzi eguneko epearen barruan ager daitezen prozeduran; eta hala, egoki baderitzote, euren legezko interesen alde egin ahal dezaten.

Arkauti, 2011ko urriaren 4a.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendaria,
ELENA MORENO ZALDIBAR.